

## OILLARRA TA AZERIA

Egun eder ondoko arrats epelean,  
Oillar gangar andi bat zugatz adarrean,  
Asmoz malmutza,  
Erpaz zorrotza,  
Legi-ernai egoan zaintzaille zurrean.

Azeri azpisuge andik igarorik  
Ta adaburuan kuku oillarra ikusirik,  
Erdi goseti,  
Osoz itzontzi,  
Onela yakon mintza, artepean zutik.

«I, ene anai maite! --diñotsa txeratsu—;  
Gureko asarre ta gudak dituk aitu;  
Anai maitekor,  
Alkar jasankor,  
Urrerantzean bizi gaitezak baketsu.

«Kardakan au bekik izpar pozgarria.  
Ator beera ta ar ene bosteko guria.  
Ator, maitetxo;  
Ator, enetxo!

«Epa daigun laztan-zur jai oroigarria».

«Bai, adiskide zindo! --erantzun oillarrak;  
Barri ezin obeak ik dakarstazanak.  
Gora, i, azari,  
Ene geznari!

«Arren-poz-jariotan jo bizi txaloak!

«Ator beera, urrumaz, yatozak txakur bi,  
Izpar orren ekarle areik bere noski.  
Betoz laztanak,  
Betoz besarkak,  
«Alkartzeko orren zio jai daigun alaiki».

«In-dardar azeria, txakurra entzunik.

«Agur, gaurkoz! —dirautsa—, urrin jun bear nik.  
Ona daikala,  
Lagun zabala;  
«Bar erabagiko auzia errotik».

«Saltzurkeri matasaz pizti bi eletan...  
«Zelako barre-zantzo, zelako pozetan,

Oillarra zangar  
Astinduz gangar,  
Azeria igeslari ikusiz lotsatan!

Iruzurrezko bidez dabillenak sarri  
Berantzat be kaltea oi dau erakarri.  
Naiz-eta trebe  
Asko izanik be,  
Maltzurak maltzurari ziria ezarri.

*Igotz*